

2007ko ekainaren 13an, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ez Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen den gaia aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIA.

1.- 2.007KO MAIATZAREN 22KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Aduna, 2007ko ekainak 11.

ALKATEA.

2.007KO EKAINAK 13.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:

Arantza Aburuza Alkorta.

Mikel Sarasola Asteasuain.
Antton Artola Ibarguren.
Patxi Ormaetxea Otegi.
Javier Zabala Zabala.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

Bertaratu gabea:

Miren Aburuza Alkorta.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko ekainaren hamahiruko hogeita bat ordu eta hogei minutuak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.007KO MAIATZAREN 22KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2007ko maiatzaren 22ko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bat ordu eta berrogei minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.